

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Beronika Garai Urkia

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1962)*

Aurkibidea



Biografia



Aretxabaletako Larrino auzoan jaioa, 4-5 urte zitula familia Arrasateko Musakola auzora joan zen bizitzera (ama Larrinokoa, aita Bedoñakoa). Eskolan oso gaizki pasatu zuen, erdaraz ez zekielako. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu Amaia Aranarekin eta Koldo Zubizarretarekin batera. Umetatik entzun du hitaanoa: Beronikaren gurasoek ez zioten hika egiten, baina hika egiten zuten senideekin. Lagun koadrilarekin hasi zen hika erabiltzen.

Zintak

ARR-196

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-04-30
- **Iraupena:** 126 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Lagun batzuekin hika

- **Erref:** ARR-196/002
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:02:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Amak anai-arrebekin beti egin izan du hika, aitzak lagun artean ere bai. Berak anai-arrebekin zuka egiten du eta lagun batzuekin hika.

2. Hika mutilzaharren kontu zakarra

- **Erref:** ARR-196/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:23. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beronikak gogoan du hika egitea ez zegoela ondo ikusita, mutilzaharren kontua zela esaten zietela. Amaginarrebak Koldori esan izan dio hika ez jarduteko, berak egiten duen arren; zakarra iruditzen zitzaion.

3. Nagusitutakoan, lagun artean hika

- **Erref:** ARR-196/004
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Nagusitu zirenean, hika hasi ziren lagun artean, zergatik hasi ziren gogoan ez badute ere. Amaiak erdaraz ondo zekienez, lagun egin ziren Beronika eta biak.

4. Gurasoek hika sekula ez

- **Erref:** ARR-196/007
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Amaiaren amak eta aitak hika zeinekin egiten zuten kontatzen du. Amaiari eta Beronikari gurasoek ez zieten hika sekula egin.

5. Euskaldunak zirenik ere

- **Erref:** ARR-196/018
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Amaiaren amak uste zuen Zerrajeran ia denak erdaldunak zirela. Gerora konturatu zen gehienak euskaldunak zirela. Beronikari erdaraz ikastea kostatu zitzaion baina gero erdara batean ibiltzen zela dio. Gogorra zela dio.

6. Umetan baserritarra izatea eta erdaraz ez jakitea gogorra zen

- **Erref:** ARR-196/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:29:57. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz bakarrik jakin eta baserritarra izatea konplejua hartzeko modukoa zen. Egoera gogorra zela dio Beronikak. Koldoren Untzilako lehenengo maistrari ez zion ardura izaten umeei euskaraz egitea. Beronika egunero arrastaka sartzen zuten eskolara.

7. Gizonen artean hika gehiago

- **Erref:** ARR-196/024
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gizonen artean hika gehiago egiten zela uste dute. Amaginarrebak ez egiteko esaten zion Koldori. Umetatik berba egin izan du hika Koldok.

8. Hika semeari bai, alabari ez

- **Erref:** ARR-196/026
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Koldok semeari hika egin izan dio baina alabari ez. Inork ez daki zergatik gertatu izan den.

9. Zeinekin egiten duten hika

- **Erref:** ARR-196/027
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beronikak lagun konkretu batzuekin egiten du hika. Koldok uste du gazteei hika egiten diela, baina mutilei seguruenik. Amaiak ere oso gutxirekin egiten du hika.

10. Hika modan, baina erdara ere bai

- **Erref:** ARR-196/028
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:46:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika modan jarri dela uste dute. Hala ere, kuadrillan euskaraz egitea erronkatzat dute gazteek.

11. Bailaran hika hirurogehi urtetik gorakoek

- **Erref:** ARR-196/030
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:48:36. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Bailaran hika egiten dutenen perfila 60 urte ingurukoak eta baserrian jaiotakoak direla uste dute.

12. Bere buruari hika

- **Erref:** ARR-196/031
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Txakurrekin hika egiten du Koldok. Bere buruari hika egiten dio Amaiak; besteek ez diote erreparatu izan.

13. Zeren arabera hika?

- **Erref:** ARR-196/032
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:53:21. **Bukatu:** 00:57:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika egiteak gertutasuna ematen dio Beronikari. Koldok ez dauka halako bereizketarik. Amaiak batzuekin gertutasunagatik egiten du hika baina beste batzuekin ez.

14. San Antoniori hika

- **Erref:** ARR-196/033
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:57:02. **Bukatu:** 00:59:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Amaiaren amak San Antoniori berba egiten zionean, hika egiten zion, eta ama birjinari zuka. Koldok egiten diotenaren arabera egiten du batzuetan; hika egiten badiote, berak ere bai. Barneratuta daukate zuka zeini egin behar zaion.

15. Hika edo zuka, ohitura aldatu behar

- **Erref:** ARR-196/039
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:10:45. **Bukatu:** 01:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika ikasteko gurasoei hika egitea ez dute gaizki ikusten, ikasteko bada. Adibide bat ematen du Amaiak. Zu edo hi egin, ohitura aldatzea zaila dela azaltzen dute.

16. Maritxu Kajoi hasieran

- **Erref:** ARR-196/047
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 01:28:12. **Bukatu:** 01:33:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Arrasateko pertsonaia xelebreez berba egiten dute; Dongi udaltzaina. Hasieran Maritxu Kajoi zelakoa zen kontatzen dute.

17. Mugikor gabeko garaian zela moldatzen ziren lagun artean

- **Erref:** ARR-196/049
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:38:57. **Bukatu:** 01:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Lagun arteko hitzorduak astero berdinak izaten ziren. Koldok nobio garaiko kontuak kontatzen ditu. Bizilagunen etxeetara joan behar izaten zuten telefonoz jarduteko.

18. Amandreen bizimodu gogorra

- **Erref:** ARR-196/054

- **Iraupena:** 0:05:29. **Hasi:** 01:50:58. **Bukatu:** 01:56:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Beraien amandreen bizimoduaz berba egiten dute. Beronikaren amandrea oso gazterik alargundu zen eta bizimodu gogorra izan zuen. Kriada joan izan ziren hiruren amak.

19. Amaren bizimodua, lana eta lana

- **Erref:** ARR-196/055
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:56:27. **Bukatu:** 01:59:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Ezkonberritan, beraien amak zela bizi ziren kontatzen du. Arropak eskuz garbitzen zituzten. Amaiaren ama Arrasatera etorri zenean, apopilo egon zen; Zerrajeran lan egin zuenekoak kontatzen du.

20. Emakumeak lan eta lan

- **Erref:** ARR-196/056
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:59:18. **Bukatu:** 02:02:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Koldoren amari astoa kartzelan sartu zion udaltzainak. Beronikaren ama bizi osoan lanean ibili izan da; emakume guztiek egin izan dutela lan asko dio Koldok.

21. Gonbidatu asko jaietan baserrian

- **Erref:** ARR-196/057
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 02:02:04. **Bukatu:** 02:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gonbidatuak etxean hartzen zituzteneko garaia kontatzen du Koldok. Lehen alkoholun edari asko hartzen zituztela kontatzen du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com